

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapena

Txanda irekiko lehiaketa-oposizio sistemaren bidez suhiltzaile espezialistaren 23 lanpostu (8 derrigortasun-data igaroa dutenak eta 15 derrigortasun-datarik gabeak) jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarriak onestea

2022ko maiatzaren 13an eta 2022ko uztailaren 29an, Tokiko Gobernu Batzarrak 23 suhiltzaile lanpostu betetzeko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen 3. eranskinean. Lanpostuen ezau-garriak: sailkapen-taldea, C; azpitaldea: C2; hizkuntza-eskakizuna, 2.a (8 derrigortasun-data du-tenak eta 15 derrigortasun-datarik gabeak); eskala, administrazio berezia; azpieskala, zerbitzu bereziak; mota: suteak itzaltzeko zerbitzua.

Deialdi hau Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzko aza-roaren 23ko 12/2023 Legean ezarritako xedapenetan oinarritutako hautaketa-prozesua da alderdi hauei dagokienez: sartzeko prozedura (24. artikulua), hautaketa-prozesua (26. artikulua), berdintasunaren aldeko neurriak (27. artikulua) eta prestakuntza eta praktikak (28. artikulua); orobat, aintzat hartu dira martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan —Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu batagina onartzen du horrek— genero-inpaktuaren aurretzeko ebaluazioari dagokionez (20. artikulua) eta hautaketa-prozesu eta epaimahaiei buruz (21. artikulua) ezarritakoak. Deialdi honek Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean aurreikusitako generoaren araberrako eraginaren aurretzeko ebaluazioa du.

Suteen prebentzio eta itzalketako zerbitzuan emakumeen eta gizonen presentzia orekatzeko, eta sustapen-planik ez dagoenez, deialdi honetan emakumeek bete beharko lituzketen plazak ehuneko 25 izango lirarteke 12/2023 Legearen 27.2 artikulua arabera. Lanpostu hutsak 27.3 eta 27.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera esleituko dira.

Horren haritik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako agin-pidea betez, honako hau ebatzi dut:

1. Onestea txanda irekiko lehiaketa-oposizioaren sistemaren bidez suhiltzaile espezialistaren kategoriako (9007) 23 lanpostu —C sailkapen-taldekoak, C2 azpitaldekoak, 2. hizkuntza-eska-kizuna dutenak (8 derrigortasun-data igaroa dutenak eta 15 derrigortasun-datarik gabeak), administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezien azpieskalan, suteak itzaltzeko zerbitzu motan integratutakoak— karrerako funtzionario gisa jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarriak, 2022ko eskaintzari dagozkionak. Ondoren zehazten dira horiek.

2. Oinarriak eta deialdia ALHAO-n eta, laburtuta, BOE-n argitaratzea; azken horren argital-penak emango dio hasiera eskabideak aurkezteko epeari.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteizko Udalaren zerbitzura suhiltzaile espezialistaren kategorian karrerako funtzionario sartzeko oinarriak

Lehena. Deialdiaren xedea

1.1. Deialdi honen xedea da suhiltzaile espezialistaren kategorian hutsik dauden 23 dotazioak karrerako funtzionario gisa betetzea, txanda irekiko oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez (horietako 8tan B2 edo HE2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edukitzea eskatzen da). Dotazio horiek administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezien azpieskalan, suteak itzaltzeko motan daude sailkatuta, eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkio, zeina 2022ko maiatzaren 13ko Gobernu Batzarrak onetsi baitzuen, eta, ondoren, 2022ko uztailaren 29an aldatu baitzen.

1.2. Oinarri orokor hauek legez araututakoaren mende daude, eta, bereziki, honako hauetan xedatutakoaren mende: 12/2023 Legea, azaroaren 23koa, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean diren legezko xedapenen testuategina; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki administrazioko funtzionarioen hautaketa-prozeduraren gutxienerako programak eta oinarrizko arauak ezartzen dituena; Eusko Legebiltzarraren 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 29koa, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko; 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena; 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko dena; 2007ko martxoaren 22ko Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testuategina onartzen duena; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorra onartzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa, eta Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.

1.3. Deialdiari buruzko informazioa:

- Webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.
- Iragarki-taula elektronikoa.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan: San Antonio kaleko 10.ekoa, gizarte etxeak, Ariznabarreko kiroldegia eta udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25).
- Argibideetarako telefonoan: 010 (Vitoria-Gasteiztik deituz gero), edo 945 161616 (Vitoria-Gasteiz kanpotik).
- Herritarren postontzian.

1.4. Kategoria berean hutsik dauden dotazioak gehituko zaizkio eskaintza honi, Gobernu Batzarrak hori alde aurretik onetsita eta ALHAOn argitaratuta, baldin eta oposizio-fasea oraindik amaitu ez bada.

Bigarrena. Betekizunak

Betekizun hauek guzti-guztiak bete beharko dituzte izangaiek:

2.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako espainiar nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen arabera langileen joan-etorri librea aplikagarri zaion herrialderen batekoa izatea.

Orobat, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetakoren bateko hiritartasuna dutenen ezkontideek (zuzenbidez banatuta ez badaude), baita haien ondorengoek nahiz ezkontideenek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik hamasei (16) urte beteta edukitzea, eta nahitaezko erretirorako adinera iritsia ez izatea.

2.3. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradu (DBH) titulu akademiko ofiziala edo horren baliokidea edukitzea edo hura eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordainduta edukitzea, eta lanpostu bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazitako gainontzeko betekizunak ere betetzea.

2.4. C motako gidabaimena edukitzea. Betekizun hori betetzeko epea 10 hilabetekoa da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

2.5. Nabigazio-lizentzia edo goragoko mailakoa izatea. Betekizun hori betetzeko epea 10 hilabetekoa da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

2.6. Diziplina-espeditente batez edozein administrazio publikoren edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ezta ebazpen judizial baten bitartez enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia izatea ere funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora sartzeko eragotziko duenik, hain zuzen.

Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legeko kausaren batean sartuta ez egotea. Hala ere, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenek aipaturako lege-arauetan aipatzen den aukera-erabaketa baliatu ahal izango dute.

2.7. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea, eta lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun arazorik ez edukitzea. (Ikus 2022ko uztailaren 26ko EHAAn (143. zk.) argitaratutako medikuntzako bazterketen koadroa, 3271 iragarkia, 35-38 orrialdeak). udal honetako prebentzio zerbitzuak zehaztuko du lanpostuaren arabeko gaitasuna, Laneko Osasunaren Atalaren bidez, karrerako funtzionario izendatu aurretik.

2.8. Deialdiko lanpostuen euskarazko hizkuntza-eskakizunak. Hizkuntza-eskakizuna betetzeko data igarora duten lanpostuetarako lehiatzen direnek, euskara tituluen eta ziurtagirien erregistro bateratuan egiaztatua ez badute, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko hautaketa-prozesuaren barruan deitzen diren probak gainditu beharko dituzte, edo ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatu. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatua dutenen kasuan, deialdiko lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna (2. HE, B2) egiaztatzeko lehen proba baino lehenagokoa izan beharko da egiaztatua duten hizkuntza-eskakizun horren data. IVAPek emandako 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria

dutenek, edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 mailarekin parekatutako euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiri ofizialen bat dutenek, baita euskara tituluaren eta ziurtagiriaren erregistro bateratuan hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ere, berariazko baimena emango diote Vitoria-Gasteizko Udalari erregistro horretan egiaztatzeko. Egiaztapen hori egitea baimentzen ez duten izangaiek dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute epaimahaiak hala eskatzen dionean. apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan —euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko— xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, baldin eta horri dagokion ariketa egin aurretik egiaztatu badute.

IVAPek emandako 1. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiriarengatik edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1 maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiriarengatik lehiaketa-fasean (M2 atala) adierazitako puntuazioa emango da, betiere euskara-proba egin aurretik egiaztatu bada.

2.9. Inskripzio-tasekin lotutako betekizuna. Hutsik dauden lanpostuen jabe izango direnak hautatzeko lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Vitoria-Gasteizko Udalak finkatuak dituen tasak (7.13 tasa) ordaindu izana (zein titulazio taldeetarako lehiatzen den, horri dagokiona) eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea

3.1. Hautaprobetan parte hartu nahi dutenek udalaren webgunean dagoen eskabide elektronikoen bitartez izapidetu beharko dute: www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak.

3.2. Eskabideak aurkezteko 20 egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Ondorio horietarako, larunbatak, igandeak eta jaiegunak ez dira egun balioduntzat hartuko.

3.3. Probak zein hizkuntzatan —euskaraz ala gaztelaniaz— egin nahi dituzten adierazi beharko dute izangaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela ulertuko da.

3.4. Agiri bidez eta horretarako egiten den probaren bidez lanposturako eskatzen den hizkuntza maila dutela egiaztatzen dutenek derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetara zein ez dutenetara sartu ahalko dira. Ikus 11.4. oinarria.

3.5. Parte hartzeko eskabideari ez zaio erantsi beharko ez betekizunei ez lehiaketa-faserako merezimenduei dagokien agiririk. (Egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteari dagokionez, ikus 9. oinarria).

3.6. Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa. Inork datu faltsurik ematen badu, hautaketa-prozesutik kanpo utziko da.

3.7. Izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte eta, eskabidea formalizatzen dutelarik, onartzen dute Vitoria-Gasteizko Udalak ahalmena duela erregistro ofizialetan kontsulta telematikoaren egiteko titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, emandako zerbitzuak, gidabaimenak eta abar egiaztatzeko, kontsulta-modalitate hori ezinezkoa denean izan ezik, kasu horretan dokumentazioa eskatuko baitaio.

Laugarrena. Borondatezko ariketak eta egokitzapenak

4.1. Borondatezko euskara-proba. Dagokion egiaztagiria ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek —betekizuna nahiz merezimendua izan— eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei. Eska daitekeen gehieneko maila lortu nahi den plazari dagokiona da.

4.2. Probetan egokitzapenak egitea behar dutenek eskabidearen oharren atalean adierazi beharko dute, eta Funtzio Publikoaren Sailari posta elektronikoz jakinarazi (procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org); idazkian, desgaitasun mota eta eskatzen den egokitzapena zehaztu beharko da, eta proba egitekoa den eguna baino 10 egun baliodun lehenagotik gutxienez jakinarazi beharko da hori.

4.2.1. Amatasunagatiko egokitzapenak. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek eskatu ahal izango dute. Haurdunaldia, erditzea nahiz erditu ondoko aldia proba fisikoak egiteko garaian egokitzen zaien emakumeek horiek atzeratzerik izango dute, gehienez ere 12 hilabetez, erditzen direnetik. Nolanahi ere, gainerako probak egin beharko dituzte, deitzen zaienean, betiere behar diren egokitzapenak eginda. Proba fisikoak egin ondoren praktikaldian hasteko kupoan sartzen badira, dena delako kategorian lanpostu bat hutsik geratzen den unean egingo dute, halakorik gertatuz gero. Proba fisikoak gainditzen ez badituzte, eta, beraz, lanposturik eskuratzen ez badute, kontratazio zerrendetan sartuko dira, puntuazioaren arabera dagokien lekuan.

4.2.2. Egokitzapenak irakurritakoaren ulermenean eragiten duten irakurketaren eta idazketaren nahasmenduak direla eta. Egokitzapena egiteko eskatu beharko dute. Egokitzapen hauek egingo dira: arial 12ko koadernotxoak erabiltzea, eta proba osorik edo zati batean ozenki irakurtzeko eskatu ahal izatea. Probaren jarraibideak eta azterketaren eredu-orria —test erakoa bada— aldez aurretik argitaratuko dira.

Bosgarrena. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, onarpenen, baztertzeen eta atzera egiteen behin-behineko zerrenda onesteko ebazpena emango du funtzio publikoaren zinegotziak; egoitza elektronikoa (“nire hautaketa-prozesuak”) argitaratuko da hori, bidenabar adierazten delarik izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dutela akatsak zuzentzeko, halakorik gertatu bada.

5.2. Onarpenen, baztertzeen eta atzera egiteen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, eta aukerako berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, egoitza elektronikoa («nire hautaketa-prozesuak») argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurkeztutako errekurtsoa ebatzi ez bada probak egitekoak diren egunerako, interesdunek probak egin ahal izango dituzte, kautelaz. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

Zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesu horietan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, galdu egingo dituzte prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea

6.1. Epaimahaia honako hauek osatuko dute: giza baliabideen buruak (lehendakaria izango da), hiru kide teknikok (bat IVAPek proposatuta), idazkariak eta horien ordezkoeak.

6.2. Inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioa bete beharko dute epaimahaikoek. Hautaketa-organoen osaera orekatua izango da emakumeen eta gizonen artean, eta sexu bakoitzak gutxienez ehuneko berrogeiko ordezkartza izango du. Hautaketa-organotako kide guztiek trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izan beharko dute, eta horietako batek, gutxienez, prestakuntza edo esperientzia izan beharko du enplegu publikoaren arloko hautaketan. Espezialitate-printzipioa betetzen dela zainduko da. Epaimahaikideen erdiak, gutxienez, lanpostuan sartzeko eskatzen den titulazioaren jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du, eta guztiek ere maila akademiko berekoa edo goragokoa.

6.3. Aholkulariak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Epaimahaiak Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren berdintasun-arloko aholkularitza izango du nahitaez.

6.4. Beharrezko diren neurriak hartuko ditu epaimahaiburuak epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren eta balorazio automatikoa izango ez duten oposizio-faseko idatzizko ariketak zein izangairenak diren jakin gabe zuzentzen direla bermatze aldera.

6.5. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.6. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du; idazkariak, berriz, prozedura-gaietan baino ez du botoa izango.

6.7. Eskatzaileen behin betiko zerrendarekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezkoen izenen zerrenda.

6.8. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) esku utziko da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egitea.

6.9. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, bertako kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, bertan ez badira. Gainera, ezinbestekoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

6.10. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek haiek errefusatzea izango dute.

6.11. Izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaiak hautaketa-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldez aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko dio—, eta izangaia egindako okerren nahiz faltsutasunen berri eman.

6.12. Prozesuaren edozein faseri dagokion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du epaimahaiak hautaketa-prozesuko edozein unetan, edozein epaimahaikidek hala eskatzen badu.

6.13. Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago —kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoiengatik—, maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa, eta maila berekoen artean, zaharrena. Epaimahaiko idazkaria ordeztu beharra badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

6.14. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b artikulua ildotik, Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (“nire hautaketa-prozesuak”) izango da hautaketa-prozesuko erabakiak, deiak, azterketa-deialdiak eta bestelako komunikazio-ekintzak ofizialki argitaratzeko lekua.

6.15. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du epaimahaiak.

6.16. Epaimahaietan parte hartzeagatik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan —zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa— aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango da.

Zazpigarrena. Ariketen nondik norakoak eta komunikazioak

7.1. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak) egongo da eskuragarri zereginen katalogoa eta egokitutako jotzen den gainerako dokumentazioa.

7.2. Izangai guztiek batera egiterik ez dagoen ariketetan, abizenen arabera zehaztuko da banaka edo taldeka jarduteko hurrenkera, Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzaren ebazpenean — ariketarako deialdia egiten den egunean indarrean dena — zehaztutakoari jarraituz.

7.3. Dei bakarra egingo zaie izangaiei ariketa bakoitzerako, 7.9 oinarrian jasotzen diren egoe-rak salbu. Nahitaezko probak egiteko zehazten diren egun, ordu eta lekuetan agertzen ez direnak hautatze-prozeduratik baztertuta geratuko dira besterik gabe. Berdin jokatu da nahitaezko probetara haiek egiten hasi ondoren agertzen direnekin. Nahitaezko probek ariketa bat baino gehiago badute, horietako edozeinetara ez agertzea edo berandu agertzea joko da ez agertzetzat.

7.4. Nortasun agiria, pasaporte edo gida-baimena eraman beharko dute izangaiek probetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango die epaimahaiak erakusteko; orobat, epaimahaiak proba bakoitzerako ezartzen dituen materialak eraman beharko dituzte.

7.5. Ariketak ezingo dira hasi deialdi honen iragarpena BOEn argitaratzen denetik hiru hilabete igaro aurretik. Lehen ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua gutxienez 10 egun baliodun lehenago iragarriko dira, egoitza elektronikoa (“nire hautaketa-prozesuak”).

7.6. Hurrengo ariketa-saioetara dei egiteko iragarkiak egoitza elektronikoa (“nire hautaketa-prozesuak”) argitaratuko dira, gutxienez ere hamar egun baliodun lehenago.

7.7. Oposizioko probak 8. oinarrian adierazitako hurrenkera ez baizik eta beste batean egitea erabaki ahalko du epaimahaiak, edo horietako batzuk egun berean egitea. Kasu horretan, aurrekoa gaingitu dutenen emaitzak baino ez dira ebaluatuko.

7.8. Prozesuan aurkeztutzat agertzen diren pertsonak joan beharko dute probetara, aurreko probak gaingituak dituztelarik, baita, kautelazko neurri gisa, epaimahaiari emaitzen kontrako alegazioa edo funtzio publikoaren zinegotziari berraztertze errekurtoa aurkeztu diotenen edo aurkeztetokotan direnen ere, baldin eta artean hura ebatzi ez bada. Kasu batean nahiz bestean, hautaketa-prozesuan jarraituko dutela jakinarazi beharko diote epaimahaiari, beharrezkoak diren baliabideak eta materialak jar ditzan. Kautelazko neurri gisa egindako frogetan lortutako emaitzak dosierrean gordeko dira, baina ez dira publikoak izango. Eragindako izangaiek epaimahaiak ezartzen duen helbide elektronikoa bidez kontsultatu ahal izango dituzte. Prozesua amaituta, eskaera onetsi ez bada, dosierra artxibatu egingo da eta, betekizunei eragiten badie, baliogabetuko.

7.9. Aparteko deialdiak. Kasu hauek eragindako pertsonen aparteko deialdi batera deitu beharko die epaimahaiak: deitutako proba egin aurretik ama izatea, erditze-data proba egiteko data baino 42 egun natural aurreragokoa delarik, edo aurreikusitako datan proba egitea eragotzi duen ezinbesteko arrazoiren bat, epaimahaiak aintzat hartu badu. Deialdi hori gutxienez 42 eguneko epean egingo da, eta gehienez 56 egun naturaleko epean, deialdi nagusia egin ondoren. Epaimahaiak probaren ezaugarriak egokituko ditu, eta behar diren egokitzapen pertsonalak hartuko dira kontuan. Gainerako proba fisikoei dagokionez, 4.2.1 artikuluan ezarritakoa aintzat hartu beharko da.

7.10. Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ezinbesteko kasutzat hartuko da, ezusteko kasua ez izan arren, proba edo azterketa bat egitea eragozten duen egoera, baldin eta ohiz kanpoko, saihetsezina eta aurreikusi ezina bada. Apartekoa eta naturala, zeinean ez baitu izangaia berrondateak esku hartzen, harentzat guztiz arrotza baita, eta aurka egiterik ez baitu. Proba egiten denetik 3 egun baliodun igaro baino lehen informatu eta jakinarazi beharko zaio epaimahaiari. Kasu horietan, epaimahaiak pertsonaren egoera baloratuko du, prozesuan parte hartzerik izan dezan bermatzearen, bai eta neurri horrek hautaketa-prozesuan nagusi izan behar duen berdintasun-printzipioan izan dezakeen eragina ere, berez lehiakorra den prozesu batean parte hartzen duen kolektiboa izanik.

7.11. Ezingo da epaimahaikideekin banaka harremanetan jarri, ez zuzenean ez hirugarrenen bitartez, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gaiz aritzeko. Hautaketa-prozesuaren inguruan sor daitezkeen gorabeherak idatziz azalduko zaizkio epaimahaiari, eta hark erabakiko du dagokiona, kide anitzeko organoa den aldetik.

7.12. Inork probetako edozein normaltasunez garatzea eragozten duen iruzurrezko jarduerarik egiten badu, edo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera lehia desleiala sortzen duenik, epaimahaiak hautaketa-prozeduratik kanpo utzi ahal izango du, eta jardun horiek bilkura-aktan jasoko ditu. Hautaketa-prozesuko edonolako proba mota egiten den bitartean, ez da onartuko lehen aipatutako printzipioak saihesteko erabil daitezkeen bitarteko eta/edo gailu elektronikoak eduki edo erabiltzea. Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, berehala kanporatuko da, bai probatik, bai hautaketa-prozesutik, eta ez da, inola ere, horren ondoriozko lan-poltsan sartuko.

Zortzigarrena. Hautaketa-prozesua

Hiru fase izango ditu hautaketa-prozesuak: oposizioa, lehiaketa, eta prestakuntza eta praktikak.

1. Oposizio-aldia. Gehieneko puntuazioa: 69 puntu. 3 ariketa izango dira:

1.1. Lehen ariketa. Nahitaezkoa; ez da baztertzaileria izango. Gehieneko puntuazioa: 10 puntu. Lanpostuko zereginetarako beharrezko diren trebetasun eta gaitasunak baloratzeko proba psikometrikoak egin beharko dira (IV. eranskina).

1.2. Bigarren ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzaileria. Gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira; gutxienez 15 puntu lortu beharko dira. Test moduko proba bat egin beharko da, erantzuteko 4 aukera ematen direlarik, I., II. eta III. eranskinetan ageri diren gaien inguruan. Erantzun zuzenengatik 1 puntu emango da, eta okerrengatik, 0,33 kenduko. Erantzun baliogabe edo anitzengatik eta zuri utzitakoengatik ez da ez punturik emango ez kenduko.

Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehieneko puntuazioa esleituko dio epaimahaiak, eta horren ehuneko 50a izango da gutxienezkoa, puntuazioa eman eta proba gainditzeko. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den eguna izango da ezagutzen erreferentzia-data. Proba honetako galderen ehunekoak, gutxi gorabehera, hauek izango dira:

- I. eranskina (juridikoa): ehuneko 15.
- II. eranskina (berriarazkoa): ehuneko 50.
- III. eranskina (geografia): ehuneko 35.

1.3. Hirugarren ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzaileria. Gehieneko puntuazioa: 29 puntu. Vitoria-Gasteizko Udaleko Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko ohiko zeregin eta lan-baldintzetan beharrezkoa den gaitasun fisikoa neurtzeko bost proba egin beharko dira. Proba horietako edozeinetan finkatutako gutxienezkoa gainditzen ez bada, ariketa bera gainditu gabekotzat joko da. Dopinaren kontrako kontrolak egin ahal izango ditu epaimahaiak, baita droga-kontsumoa antzemateko testak ere, osasunerako arriskutsu diren dopinaren eta narkotikoen erabileraren alorrean indarrean dagoen legedia betetzen dela bermatzeko, eta horietakoren batean positibo emanez gero, ariketa gainditu gabekotzat joko da. Proba horietara aurkezte hutsagatik, izangaiek beren osotasun fisikoaren gaineko erantzukizun osoa hartuko dute beren gain, eta korporazio hau eta epaimahai kalifikatzailea salbuetsita geratuko dira ariketak egitean sor daitezkeen edozein lesioren erantzukizunetik.

1.3.1. Igeriketa:

100 metro igeri egin beharko da, 25 metroko igerilekuan, nahi bezala.

Igerilekuaren erdian 2 metroko luzera izango duen zona bat mugatuko da, kortxo ilarekin, eta urpetik egin beharko da zati hori.

Ezingo da urpean igeri egiteko elementurik erabili; bai, ordea, igerilekuko betaurrekoak. Txanoa erabiltzea nahitaezkoa izango da.

Kanporatzea ekarriko dute kalez aldatzeak, kortxo ilarei heltzeak eta urpetik egin beharreko zonan, arnasa hartzeko, burua ateratzeak.

Lehiatzaileak laugarren tartea burutu eta —aztertzaileak ongi ikusteko moduan— horma ukitzen duenean bukatuko da proba.

Irteera taldeka emango da. Uretatik —irteera-horma ukitzen delarik— nahiz kanpoko ertzetik egin ahal izango da. Segundoak neurtuko dira, hamarrenak kontuan hartu gabe. Puntuazioak: Gutxienekoa: 3,5 puntu (130 segundo, gizonezko nahiz emakumezkoek). Gehienekoa: 7 puntu (90 segundo, gizonezkoek; 100 segundo, emakumezkoek).

Denbora	Gizonak	Emakumeak
130	3,5	3,5
129	3,59	3,62
128	3,68	3,73
127	3,76	3,85
126	3,85	3,97
125	3,94	4,08
124	4,03	4,2
123	4,11	4,32
122	4,2	4,43
121	4,29	4,55
120	4,38	4,67
119	4,46	4,78
118	4,55	4,9
117	4,64	5,02
116	4,73	5,13
115	4,81	5,25
114	4,9	5,37
113	4,99	5,48
112	5,08	5,6
111	5,16	5,72
110	5,25	5,83
109	5,34	5,95
108	5,43	6,07
107	5,51	6,18
106	5,6	6,3
105	5,69	6,42
104	5,78	6,53
103	5,86	6,65
102	5,95	6,77
101	6,04	6,88
100	6,13	7
99	6,21	
98	6,3	
97	6,39	
96	6,48	
95	6,56	
94	6,65	
93	6,74	
92	6,83	
91	6,91	
90	7	

1.3.2. Pisua arrastaka eramatea:

Izangaiak 75 kiloko maniki bat eraman beharko du arrastaka, marra batetik hasi eta 30 metrora dagoen beste marra bat gainditu arte. Bide erdian 90 graduko bira egin beharko da. Irteera marrari bizkar emanda jarri beharko da, orpoak hari josita eta manikiaren bizkarra bularraren kontra, besapeetatik helduta, atzetik. Seinalea ematean, orpoak arrastaka eraman beharko da manikia, harik eta manikiaren orpoek bukaerako marra gainditu arte. Neurketa: saio bakarra egin ahal izango da. Segundoak neurtuko dira, hamarrenak kontuan hartu gabe.

Puntuazioak: Gutxienekoa: 3,5 puntu (49 segundo, gizonetzko nahiz emakumezkoek). Gehi-
nekoa: 7 puntu (30 segundo, gizonetzkoek; 38 segundo, emakumezkoek).

Denbora	Gizonak	Emakumeak
49	3,5	3,5
48	3,68	3,82
47	3,87	4,14
46	4,05	4,45
45	4,24	4,77
44	4,42	5,09
43	4,61	5,41
42	4,79	5,73
41	4,97	6,05
40	5,16	6,36
39	5,34	6,68
38	5,53	7
37	5,71	
36	5,89	
35	6,08	
34	6,26	
33	6,45	
32	6,63	
31	6,82	
30	7	

1.3.3. Arintasuna neurtzeko zirkuitua:

Joan-etorriko zirkuitu bat egin beharko da, bi bider, ahalik eta denborarik gutxienean, 10 kiloko gainkargarekin —txaleko bat edo antzeko zerbait—. Zirkuituak ezaugarri hauek izango ditu: irteera-marratik metro batera haga bertikal bat jarriko da lurrian (160-170 zentimetroko altuera); irteera-marratik 3 metrora 3 banku suediar jarriko dira, gutxi gorabehera 6 metroko luzera hartzen dutelarik; azken bankutik 2 metrora listoi bat jarriko da, metro bateko altueran; listoitik 3 metrora 3 haga jarriko dira (160-170 zentimetroko altuera), lerrokatuta eta elkarrengandik metro eta erdira; azken hagatik horma-barretara 3 metro izango dira, eta 3 metroko altueran kanpaia jarriko da. Bigarren itzulian irteeratik metro batera dagoen hagaren atzetik igaro beharko da. Irteera-marratik metro erdira jarri beharko da, bizkarrean 10 kilo \pm 1 kilo-ko zama hartuta. Aztertzaileak esaten dionean hasiko da izangaia. Lurrian jarritako haga inguratuz pasatu beharko da, eta banku suediarren gainetik igaro, lurra ukitu gabe. Listoiaren parera iristean haren azpitik igaro beharko da, bota gabe. Hagen artetik sigi-saga egin ondoren, horma-barretara igo beharko da, eta kanpaia jo. Jaitsi eta zirkuitu bera egin beharko da, kontrako noranzkoan.

Bigarren zirkuituari ekiteko, irteera-marratik metro batera dagoen hagaren atzetik pasatu beharko da, eta joan-etorriko zirkuitu bera egin. Irteera-marra gurutzatzean bukatuko da ibilbidea.

Proba egiteko jarraibideak: irteera-marratik metro erdira jarri beharko da, adierazi den moduan, eta bi aldiz egin zirkuitua. Proba baliogabetu egingo da hagaren bat edo listoia botatzen bada, banku suediarren tartean lurra ukitzen bada nahiz ibilbideren batean kanpaia jotzen ez bada.

Neurketa: bigarren saio bat egiteko aukera emango da, lehena baliogabetuz gero. Segundoak neurtuko dira, hamarrenak kontuan hartu gabe.

Puntuazioak: Gutxienekoa: 3,5 puntu (39 segundo, gizonetzko nahiz emakumezkoek). Gehi-
nekoa: 7 puntu (27 segundo, gizonetzkoek; 31 segundo, emakumezkoek).

1.3.4. Dominatuak:

Gimnasia-ariketa bati deitu ohi zaio horrela. Honetan datza: barra batetik zintzilik jarrita, gora jaso behar da gorputza; hasteko, atsedean posizioan egon behar da, besoak guztiz luzatuta; besoak tolestuz, gorputza gora jaso behar da, kokotsa barratik gora eraman arte; hori egin bitartean, zangoak ezin dira jaso. Pronazioan, supinazioan edo modu mistoan heldu ahal izango zaio barrari, baina ezingo da hasieran aukeratutako heltzeko modua aldatu proba egin bitartean.

Hasierako posizioa besoak guztiz luzatuta izango da, eta izangaia hormara begira. Ezingo da mahuka luzeko arroparik erabili. Ezingo da balantza egin; beraz, gorputzaren edozein parterekin horma ukituz gero flexioa ez da ontzat emango.

«Gora» esatean, flexioa egiten hasi beharko da, kokotsa barratik gora igo arte, eta dena delako dominatuaren zenbakiarekin adieraziko zaio hori izangaiari. Hurrengo dominatuari ekiteko, hasierako posizioan jarri beharko du. Besoak guztiz luzatu gabe egiten bada flexioa, mahailezurak barraren altuera gainditzen ez badu edo gorputzaren edozein parterekin horma ukitzen bada, flexio ez da ontzat emango.

Proba egin bitartean baliogabetzat jotzen diren 5 flexio edo gehiago egiten badira, proba errepikatu ahal izango da, 10 minutu igaro ondoren. 10 flexio oso egitean bukatuko da proba, edo izangaia oinekin lurra ukitzen duelarik, gutxieneko 10 flexioak egin gabe.

Nahitaezkoa eta baztertzalea da proba, eta ez du puntuaziorik.

1.3.5. Course-Navette:

Ahalik eta denborarik luzeen egin behar da korrika (joan-etorriko ibilbidea, 20 metroko distantzia), minutuz minutu handitzen joango den abiaduran. Tarte bakoitzeko abiadura soinu-zinta baten bitartez erregulatzen da, denbora-tarte erregularretan soinu bat egingo baitu.

Joan-etorriko ibilbideak bata bestearen atzetik egin beharko dira, harik eta izangaia zintak adierazten dion unean marra gainditu edo zapaltzea lortzen ez duen arte.

Izangaientzako jarraibideak: irteera-marraren atzean jarri behar dira, elkarrengandik metro bateko distantzia utziz. Kasetea martxan jartzen denean, irteera-seinalea entzutean, aurrez aurre 20 metrora dagoen marraraino iritsi behar da, hurrengo seinalea entzun aurretik edo orduantxe. Ezinbestekoa izango da soinu-zintak markatzen duen erritmoari jarraitzea; ezingo da hurrengo tarte egiten hasi seinalea entzun arte. Tarteetako bakoitzean gutxienez oin batekin zapaldu beharko da marra.

Balorazioa: saio bakarra egingo da. Parte-hartzaileak soinu-seinalearen erritmoa galdu aurretik iragartzen den azken minutuaren zenbakia (palierra) erregistratuko da. Antolakuntza arrazoiengatik nahiz arrazoi teknikoengatik ariketa eten beharra gertatuz gero, gehienez ere 24 orduz atzeratu ahal izango da, berriro egin arte. Udalaren webgunetik deskargatu ahal izango da probaren audioa. Gehieneko puntuazioa: 8 puntu.

Course-Navette ariketaren taula. Tarte eta tarte-erdia aintzat hartuko dira. Puntuazioak: gutxienekoa: 4 puntu (8,5 tarte). Gehienekoa: 8 puntu (14 tarte, gizonezkoek; 12 tarte, emakumezkoek).

Burututako tarteak	Gizonak	Emakumeak
8,5	4	4
9	4,36	4,57
9,5	4,73	5,14
10	5,09	5,71
10,5	5,45	6,29
11	5,82	6,86
11,5	6,18	7,43
12	6,55	8
12,5	6,91	
13	7,27	
13,5	7,64	
14	8	

2. Lehiaketa-aldia: Gehieneko puntuazioa: 31 puntu.

M1. Prestakuntza. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu. Erdi-mailako (2,5 puntu) eta goi-mailako (5 puntu) Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloi dagozkien titulazio ofizialak baloratuko dira. Lanbide-familia bakoitzeko titulazio bakarra hartuko da kontuan, mailarik gorenekoa.

Lanbide-familia hauetako prestakuntza baloratuko da:

Nekazaritza.

Elektrizitatea eta elektronika.

Kimika.

Eraikuntza eta obra zibila.

Fabrikazio mekanikoa.

Instalazioa eta mantentzea.

Zura, altzariak eta kortxoak.

Osasuna.

Segurtasuna eta ingurumena.

Garraioa eta ibilgailuak mantentzea.

Erauzketa-industriak.

M2. Euskara jakitearen balorazioa. Lehendik egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna edo horretarako proban egiaztatzen dena baloratuko da:

1. HE: 4 puntu.

2. HE: 8 puntu.

M3. Esperientzia profesionala. Administrazio, organismo eta entitate publikoetan, suhiltzaileen kategorian, karrerako edo bitarteko funtzionario gisa izandako esperientzia profesionalaren balorazioa.

Administrazio publikoek jaulkitako suhiltzaileen kategoriako zerbitzuen ziurtagirien bitartez egiaztatzen diren lanaldiak baloratuko dira, edozein harreman juridikoren menpe eginak izanda ere, zerbitzu zibilak edo merkataritza-zerbitzuak alokatzeko kontratuak, beka eta prestakuntza-praktikaldiak izan ezik. Egun bakoitzeko 0,0083 puntu emango da, gehienez 18 puntura arte. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurreko aldiak bakarrik hartuko dira aintzat. (Ikus 9.1.). Ondorio horietarako, honako hauek ere balioetsiko dira: hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora; amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familia eta lana kontziliatzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketekin edo baimenekin emandako denbora, baita emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere.

3. Prestakuntza- eta praktika-fasea:

Oposizio- eta lehiaketa-faseak amaituta, hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatzeko proposatuko du epaimahaiak, deitutako plazen mugaraino. Izendapenaren data argitaratuko da, eta administrazioak ezartzen duen egunean jabetuko dira lanpostuaz.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak praktikaldian edo suhiltzaileen kategorian sartzeko prestakuntza-ikastaroan sartu beharko dira. Ikastaroa nahitaezkoa da eskainitako plazak eskuratzeko. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emango du, eta hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko dira akademiak berak ezartzen dituen gutxienekoak lortzen ez dituztenak. Fase honetan lortutako puntuazioa ez da kontuan hartuko, emaitza 'gai da' / 'ez da gai' izango baita. Prestakuntza-aldian, lanpostuari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko dira.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ematen duen suhiltzaileen oinarrizko ikastaroa egin duten izangaiek edo Euskal Autonomia Erkidegoko udal- edo probintzia-suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetan gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatua dutenek ez dute prestakuntza-ikastaroa egin beharrik izango, eta zuzenean sartu beharko dute praktiketan.

Prestakuntza-ikastaroa ez gainditzeak hautaketa-prozesutik bazterzea ekarriko du.

Praktikaldiak sei hilabete iraungo du, eta lanpostuari dagokion ordainsari osoa jasoko da epe horretan.

Praktikaldian, trebetasun pertsonalak ebaluatuko dira bereziki, eta lanpostuan jarduteko betekizunetara egokitzen diren. Herritarren Seguritasunaren Saileko Zuzendaritza Nagusia arduratuko da praktikaldia diseinatu, ikuskatu eta ebaluatzeaz. Orobat, praktikaldia bukatzean, ebaluazio-proposamen bat egingo du —'gai da' / 'ez da gai'—, behar bezala arrazoiturik —kontuan izan beharko baitu praktikaldia gainditu den ala ez, baita lanbide profilerako egokitasuna ere—, eta epaimahaiari igorriko. Egokitzen diren prestakuntza-ekintzak barne hartuko ditu praktikaldiak. Praktikaldia bukatzen denetik eta lanpostuaz jabetu bitartean izangaiek aukeran izango du dela praktikaldiko funtzionario gisa jarraitu, dela izendapen hori bukatutzat jo.

Karrerako funtzionario izendatuak izatekotan, hautaketa-prozesuko aldi hori ere gainditu beharko dute izangaiek.

Bederatzigarrena. Merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztea

9.1. Eskumena duen organoak emandako ziurtagirien bitartez egiaztatu beharko dira administrazio publikoetan egin eta aitortutako zerbitzuak (lanpostua, zereginak eta denbora adierazi beharko dira bertan). Ez dira aintzat hartuko lan-esperientziaren alorreko merezimenduak baldin eta honako datu hauek espresuki adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide kategoria.
- Kontratazio-aldien hasiera- eta bukaera-datak.
- Lanpostuaren zeregin nagusiak, kategoria adieraztea aski deskriptiboa edo erreferentziakoaren aski antzekoa ez dela uste izanez gero.
- Vitoria-Gasteizko Udalean egindako zerbitzuak ofizioz sartuko dira.

Enplegu publikoan emandako zerbitzuen fitxategiak trukatzeko NISAE sistemari atxikitako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan emandako zerbitzuak epaimahaiak ezarritako moduan eta unean alegatu beharko dira. Kasu horretan, ofizioz egiaztatuko dira.

Gainerako entitate publikoetan emandako zerbitzuak, berriz, aitortu eta egiaztatu egin beharko dira.

9.2. Lehiaketa-aldiko merezimenduak egiaztatzeko agiriak epaimahaiari aurkeztu beharko zaizkio, hark ezartzen duen moduan eta epean.

Hamargarrena. Emaizak argitaratzea

10.1. Epaimahaiaren argitalpenak egoitza elektronikoa egingo dira (“nire hautaketa-prozesuak”).

10.2. Epaimahaiarekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean ondorio horietarako erregistratu den helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta zuzen hartu dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz. Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko. Epaimahaiak erreferentziako helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta gaian erabiltzeko kodeak ere ezarri ahalko ditu, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearen.

10.3. Jakinarazpenak posta elektronikoz igorri jakinaraziko zaie deialdi jakin batera aurkeztu diren izangai guztiei egoitza elektronikoa (“nire hautaketa-prozesuak”) argitalpen berriak egin direla. Abisuak ez jasotzeak ez du baliogabetu edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

10.4. Ezagutzak balioesteko proba idatziak bukatutakoan, baldin eta test modukoak izan badira, galdera-koadernotxo eta erantzun zuzenen behin-behineko orria argitaratuko ditu epaimahaiak, eta 5 egun balioduneko epea emango akatsak berrikusteko. Jakinarazitako akatsak kontuan izanik, epaimahaiak behin betiko erantzun-orria onetsiko du, eta horren ondoren ariketa edo proba irakurri eta kalifikazioa jarriko. Emaitzak argitaratu ondoren 3 egun balioduneko epea emango da gutxienez irakurketa akatsak erreklamatzeko, halakorik bada.

10.5. Idatzizko probak test erakoak ez badira, 2 egun balioduneko epea emango da probaren edukiaren kontrako alegazioak aurkezteko, eta behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren beste 2 egun balioduneko epea emango da dosierra eskuratu ahal izatea eskatzeko; behin-behineko emaitzaren kontrako edozein alegazio aurkeztu aurretik egin beharko da hori. 10.2 oinarrian ezarritako prozedurari jarraituz eskatuko da dosierra eskuratzeko. Dagokion prezio publikoen eta tasen ordenantzak ezartzen duen tasa ordaindu ondoren, posta elektronikoa jaso eta epaimahaiari jakinarazten zaionetik 2 egun balioduneko gehieneko epean, ariketaren kopia, zuzenketa-irizpideak eta horien aplikazioa jasoko dira gutxienez, pdf formatuan. Alegazioak aurkezteko epea 5 egun balioduneko izango da, dokumentazioa jasotzen denetik.

10.6. Horretarako epearen barruan izangaiak aurkeztu dituzten berrikuspen-eskabide eta erreklamazio guztiak epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaitzak onesteko hartzen duen erabakian aintzat hartu eta erantzun dituela joko da. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

10.7. Azterketa- eta merezimendu-faseak burutu ondoren, proba guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, guztira lortutako puntuazioen arabera hurrenkeran, ariketa bakoitzean lortutako puntuak nahiz azken puntuazioak zehaztuta.

10.8. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute izangaiak, Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzio publikoaren zinegotziari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Hamaikagarrena. Praktikadirako izendapen-proposamenak

11.1. Epaimahaiak 10 egun balioduneko epea ezarriko du deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten jatorrizko agiriak (titulazioa, hizkuntza eskakizuna, tasen ordainketa...) Funtzio Publikoaren Sailean aurkezteko, sailak erregistro ofizialetan zuzenean lortzerik izan ez badu.

11.2. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta izangaiak agiri horiek aurkeztu ez baditu adierazitako epean, edo eskatzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da praktiketako funtzionario izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduerak oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak emateagatik erantzukizunak eskatzea. Hala gertatuz gero, hautaketa-prozesua gainditu dutenen arteko hurrengoak —azken puntuazio-hurrenkerari jarraituz— izendatzeko proposamena egingo du organo eskudunak, bete beharreko lanpostu guztiak bete arte.

11.3. Lanpostuak ezingo dituzte bete, inolaz ere, betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ez duten izangaiak.

11.4. Funtzio Publikoaren txostenak aintzat harturik —titulazio betebeharrak betetzen diren eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatu diren adieraziko da bertan, eskainitako lanpostuak zehaztuko, eta udaleko zerbitzu medikuak emandako gaitasun-kalifikazioak jasoko (2.6. oinarria)—, eta orobat aintzat harturik lehiaketa- eta oposizio-aldietan lortutako emaitzak, praktikadirako izendapen-proposamenak argitaratuko ditu epaimahaiak, eskainitako lanpostuen kopurua gainditu gabe.

Praktiketako funtzionario izendatzeko proposatu diren pertsona guztiei destino bat esleitzen zaiela bermatzearen, destinoak aukeratzeko unean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten eta aukeratzeko dauden izangaien kopurua eta hizkuntza-eskakizunik ez duten destinoen kopurua bera bada, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten eta aukeratzeko dauden izangaiek eskakizun hori duten lanpostuen artean aukeratu beharko dute.

11.5. Berdinketak hausteko, eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak —Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten du—21. artikuluan xedatutakoaren arabera, gaikuntza-maila bera izanez gero, lehentasuna emango zaie emakumeei emakumeen presentzia ehuneko 40tik beherakoa den kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagaiarengan bestelako arrazoirik egokitzen bada —sexu bereizkeriarik gabe—, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duenik, hala nola lana lortzeko zailtasun bereziak dituztenen multzoetakoren batekoa izatea. Ondorio horietarako, izangaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, kasuan kasuko merezimenduak batu ondoren.

Berdinketa sexu bereko bi pertsona edo gehiagoren artean gertatzen bada, bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duena proposatuko da, eta, hurrenez hurren, hurrengo ariketetakoa, goranzko ordenan.

Aurreko prozedurari jarraituz deitutako plazen ehuneko 25 emakumeek betetzea lortzen ez bada, eta lanpostuan emakumeak ehuneko 33 baino gutxiago badira, Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei buruzko azaroaren 23ko 12/2023 Legearen 27.3 artikuluan jasotako arau hauek aplikatuko dira, eta emakumezko izangaiei lehentasuna emango zaie gizonezko izangaien aurretik, lortu nahi den helburua bete arte, baldin eta:

a) Gaitasun-baliokidetasuna badago, hautaketa-sistemako oposizio-faseko probak eta ariketak gaingaitzeagatik.

b) Lehentasun hori aplikatuz hautatutako emakumezko hautagaiek ez badute ehuneko 15etik gorako puntuazio-diferentziarik baztertzen diren gizonezko hautagaien aldean oposizio-fasean eta, hala badagokio, lehiaketa-fasean, hautaketa-sistemaren arabera.

c) Beste hautagaiarengan ez badago neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen legezko arrazoirik, sexu-arrazoiengatik diskriminatzaileak ez badira ere; esate baterako, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

11.6. Haurdunaldia, erditzea nahiz erditu ondoko aldia dela eta praktikaldian sarterik ez duenik izanez gero, medikuak edo ospitalean alta eman arte atzeratuko da hori egitea. Era berean, arrazoi berberengatik pertsona jakin batek ezin badu praktikaldia hasi, lehengoratu arte atzeratuko da hori egitea, eta orduan izendatuko da praktikaldiko funtzionario, eta praktikaldiari ekin beharko dio. hautaketa-prozesuko fase hori gaingitzen bada, aldi baterako ezintasuna suertatu ez balitz legokiokeena izango da ondorio administratibo eta ekonomikoen data. Era berean, arrazoi horiengatik pertsona jakin batek ezin badu bere lanpostuan hasi hautaketa-prozesua bukatu ondoren, promozio gainerakoena bezalaxe egingo da haren karrerako funtzionario izendapena, eta izendapena egin eta lanpostuaz jabetzen den datatik izango ditu horrek ondorio administratibo eta ekonomikoak.

Hamabigarrena. Karrerako funtzionario izendatzea eta lanpostuaz jabetzea

12.1. Prestakuntza- eta praktika-fasea amaitu eta gaingitu ondoren, hautatutako pertsonak karrerako funtzionario izendatuko dira, Funtzio Publikoaren arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez.

12.2. Izendatutako pertsona horretarako ezarritako epean jabetu beharko da karguaz, eta gehienez ere hilabete atzeratu ahalko du, lanean hasteko data argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

12.3. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez dutela aitortu beharko dute izendatutako pertsonak. Ezarritako epean lanpostuaz jabetzen ez direnek galdu egingo dituzte Vitoria-Gasteizko Udaleko karrerako funtzionario izateko eskubideak, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Kasu horietan, baita hautatutako pertsonak izendatu aurretik edo lanpostuaz jabetu aurretik uko egiten dutenean ere, edo lanpostuaz jabetzeko unean bertan sektore publikoan zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentzia eskatzen dutenean —lanpostua gorde gabe eta benetan lanean hasteko aukerarik gabe—, Funtzio Publikoaren sailak beste izendapen-proposamen bat egiteko eskatuko dio epaimahai kalifikatzaileari, hautaketa-prozesuaren azken emaitzen puntuazio-ordenaren arabera dagokien izangaien alde.

12.4. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 5. xedapen iragankorraren m) letran xedatutakoaren arabera, «Administrazio bakoitzak lanpostuen tarretarako ezarritako gutxieneko mailari dagokion gradua eskuratuko dute funtzionario sartu berriek, eta gradu horren finkatzea artikulu honetako arauen arabera eraenduko da, batez ere i) letrakoaren arabera.»

Hamahirugarrena. Aldi baterako kontratazioetarako zerrendak

Egokitzen diren aldi baterako langile beharrei erantzuteko kontratazio-zerrendak sortuko dira deialditik —proba guztiak gainditu bai baina lanposturik eskuratu ez dutenekin osatuko dira—.

Izangaiek prozesu horietan parte hartzeko eskabidean adierazi ahal izango dute baimena ematen duten administrazio publikoko beste erakunde batzuei honako hauei buruzko datuak lagatzeko: izen-abizenak, nortasun agiri nazionala, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datuen lagapen horren helburu bakarra eta eskusiboa izango da haiek enplegu-eskaintzak egin ahal izatea legez aurreikusitako baldintzetan, eta beren adostasuna espresuki jasotzen ez bada ez dutela horretarako baimenik ematen ulertuko da.

Suhiltzaileen kategorian sartzeko behar den prestakuntza prozesu honetan sortutako kontratazio zerrendako langileei zabalduko zaie, puntuazio-ordenaren arabera, gehieneko edukiera osatu arte eta ikasleei kosturik eta ordainsaririk ordaindu gabe.

Hamalagarrena. Bibliografia

14.1. Eranskinean ageri den bibliografia orientabide gisa baino ez da ematen; beraz, ez da ez loteslea, ez erabatekoa.

Hamabosgarrena. Aurkaratzeak

15.1. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek oinarri hauek, deialdia bera nahiz horren edo epaimahaiaren jardueraren ondorio diren egintzak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 29an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzia
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

ERANSKINAK**I. eranskina. Gai orokorrak**

1- Espainiako 1978ko Konstituzioa: Atariko titulua: Egitura eta printzipio orokorrak. Lehen titulua: Oinarrizko eskubide eta betebeharrak Espainiako Konstituzioan.

2- Euskadiko autonomia-administrazioa: Autonomia Estatutua: Bigarren titulua. Euskal Herriko botereak: Aginte legegilea. Eusko Jaurlaritzaren osaera, eskumenak eta funtzionamendua.

3- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio publikoen jardura: II. titulua, I. eta II. kapituluak.

4- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-egintzak: III. titulua, I., II. eta III. kapituluak. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak: IV. titulua, I. eta II. kapituluak.

5- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Enplegu publikoaren antolamendua eta egitura IV. titulua. I. kapituluak, lehenengo atala, 45. artikulua: Lanpostu-zerrendak. Bigarren atala. Enplegu publikoa planifikatzeko tresnak: 51. artikulua. Aurrekontu-plantillak.

6- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Eskubide eta betebeharrak. Diziiplina erregimena. XI. titulua. I. kapituluak, 161. artikulua. Euskal enplegatu publikoen eskubide indibidualak, eta 162. artikulua. Kolektiboki baliatzen diren eskubide indibidualak.

7- 12/2023 Legea, azaroaren 23koa, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei buruzkoa. I, II. eta III. kapituluak.

8- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testu bategina. Atariko titulua. I. titulua, 7. artikulua. Toki administrazioa. III. titulua, VII. kapituluak.

9- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. I eta III. kapituluak.

10- 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, larrialdi-egoerei aurre egiteko hainbat jardura, zentro edo establezimenduri eska dakizkieken babes-neurriak arautzen dituena. I, II. eta III. kapituluak.

II. eranskina. Berariazko gaiak

- 1- Trafiko-istripuetako erreskatean norbera babesteko tresneria. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 2- Askatzeko tresna eta materialak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 3- Eraikuntza-printzipioak eta egiturak egonkortzea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 4- Suteen kontra borrokatzeko printzipioak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 5- Basoetako suteak: Sutea landaretzan. Basoetako suteen dinamikan eta hedapenean laguntzen duten faktoreak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 6- Suteen prebentzioa. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 7- Arrisku naturalak: Arrisku naturalen tipologia. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 8- Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 9- Arnas-babeserako ekipoak: Toxikotasuna suteetan eta arnasketa-arriskuak. Arnasbideak babesteko ekipoen sailkapena. Aire-kontsumoa kalkulatzeko. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 10- Sua itzaltzeko baliabideak. Operazio eta instalazioak, hodi malguekin: lantzak, hodi malguak, errakoreak, su-itzalgailu eramangarriak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 11- Arnasketaren fisiologia. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 12- Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 13- Banaketa-sareak eta instalazioak. 3.3. A. Suhiltzaileentzako elektrizitatea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 14- Banaketa-sareak eta instalazioak. 3.3. B. Gas instalazioetan eta banaketa-sareetan esku hartzea, eta 3.3. C. Igogailuak (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 15- Tresna eta ekipoak erabiltzea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 16- PSISZetako ibilgailuak: A. Ibilgailuak / Lehentasuna duten ibilgailuentzako trafiko-arauak (10-14). (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 17- Euskadiko Herri Babeserako Plana (LABI): Kontzeptuen definizioa eta larrialdiaren faseak. Euskadiko Herri Babeserako Plana aktibatzea (urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuaren eranskina: III. kapitulua, 1. eta 2. apartatuak).
- 18- Larrialdietan Laguntzeko Euskal Sistemaren taktika operatiboak, Herrizaingo sailburuaren 2001eko Aginduaren bitartez onetsiak (2001eko irailaren 13ko EHAA, 178. zk.). Taktika operatiboen zerrenda orokorra eta taktika operatiboetarako xedapen komunak (Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Zentrala; 6. argitalpena, 2023ko maiatzekoa, ISBN: 978-84-457-3694-2, 9. orrialdetik 26.era).
- 19- 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. I., II., III. eta IV. kapituluak.

III. eranskina. Geografia-gaiak

20- Gasteiz: kale-izendegia, industrialdeak, eraikin bereziak. Komunikazio-sarea.

IV. eranskina. Lanpostuko zereginetarako beharrezko diren trebetasun eta gaitasunak

- Adimen orokorra.
- Egonkortasun emozionala.
- Herritarren zerbitzura orientatzea.
- Ardura profesionala.

Bibliografia-orientabideak:

- Suhiltzailearen eskuliburua. Argitaratzailea: Arkauteko Akademia.
- Vitoria-Gasteiz.

Geografia-informazioa: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia - Ingurumen Atlas (www.vitoria-gasteiz.org).

Vitoria-Gasteizko mapa.

– Kirolean debekatutako substantzia eta metodoak: <https://www.csd.gob.es/es/csd/legislacion-deportiva/proteccion-de-la-salud-y-lucha-contr-el-dopaje-en-el-deporte>.